

TAU BASKONIA. Foirest jokatzeko moduan egongo da, azken bi egunetan normaltasunez entrenatu ondoren

Garaipen erritmoa berreskuratu nahi du behingoz Tauk Canariasen kontra

Aunacablek kontraerasoan duen bizitasunaz ohartu du Dusko Ivanovic entrenatzaileak

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Tau bere sasoi onenetik urrun dagoela ez da gauza berria. Denboraldi-aurre egokia ez egiteak eragin handia izan du Gasteizko taldean; dena den, denboraldia aurrera joan ahala talde handi batek izan behar dituen ohiturak berreskuratzen hasi behar du Baskoniak: partidaren erritmoaz jabetzea, defentsa gogorra egitea minutu guztietan, joko onik gabe irabaztea... Gauza horietan aurrera doa poliki-poliki Ivanovicek zuzentzen duen taldea, baina garaipen bolada batean bete-betean sartu behar du oraindik Gasteizko taldeak, eta horretarako

Aunacable Canariasen kontra irabaztea derrigorrezkoa du.

Denboraldia hasi zenetik hiru garaipen jarraian lortzen duen lehen aldia da, eta bide horretan mantentzeak garrantzi handia izan dezake goranzko bidea hasteko behin betiko ACB Ligan. Ivanovicek jokalaria gehienak izango ditu kantzaratzeko moduan, Laurent Foirest ukondoan zuen mina sendatu baitu denbora luzea jokatu gabe egon ondoren. Hegaleko frantziarrak Gasteizko taldean eman dituen urteek erritmoa besteek baino azkarrago berreskuratzeko aukera ematen diote, baina oraindik denbora falta zaio bere sasoirik onena



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Hanno Mottola Tau Baskoniako jokalaria finlandiarra, Real Madrilaren aurkako partidaren.

berreskuratzeko. Hortaz, eta orain arte egin duten bezala, Tauko jokalariek talde senean oinarritutako defentsa bat ezarri beharko dute Aunacableren erasoak gelditzeko, eta horren gainera erasoak antolatzea. Dena den, Tauren gaurko aurkariak kontraerasoan ateratzeko erraztasun handia du, eta egoera horrek defentsa behar bezala antolatzea arazoak sortuko dizkio Gasteizko taldeari. Hortaz, erasoan ohi baino

lasaitasun gehiago izan beharko dute jaurtiketa onena lortzeko.

Aipagarriak dira Gonzalo Martinez joko antolatzaileak taldeari ematen dion bizitasuna, Jason Klein eta Jay Larrañaga hegalekoen hiruko jaurtiketa, eta Larry Lewis eta William Eley piboten indarra saskipean, baita kontraerasoa egiteko duten abiadura ere. Lan gogorra du Gasteizko taldeak aurretik.

Tau Baskonia-Aunacable

Txapelketa: ACB Ligako seigarren jardunaldia.

Sailkapena: Tau Baskonia 14. (2 irabazi-3 galdu); Aunacable Canarias 6. (3 irabazi-2 galdu).

Tau Baskonia: Allen, Nocioni, Palladino, Griffith, Mottola, Calderon, Vidal, Scola, Buesa, Foirest eta Hernandez.

Aunacable Canarias: Martinez, Klein, Larrañaga, Lewis, Eley, Brabender, Guerra, Moran, Murcia eta Montas.

Ordua: 19:30ean.

Tokia: Fernando Buesa Arena.

Oiartzungo **MADALENSORO**

pilotalekua

TB erretransmisioa:

17:30 etan

Jaialdia: 16:00 etan

4 1/2ko txapelketa



KOKA • OLAIZOLA II

babeslea

bbk=

5
TELECINCO

Josep Lizarza
El mejor estilo
FRONTON